

## Gasteizerako nekazaritzako elikagaien sistema iraunkorra eraikitzeko oinarriak



### Balioztatzea eta hurrengo urratsak definitzea Topaketaren emaitzak jasotzen dituen agiria

2016ko azaroaren 15a. Europa biltzar jauregia, 17:30etik 20:00etara.

Parte-hartzea hirien bizitza da  
Fernando Pindado

**Agiri honek** joan den azaroaren 15ean Gasteizerako nekazaritzako elikagaien estrategia iraunkorra zehazteko partaidetza-prozesuan inplikaturako gizarte-eragileekin egindako topaketaren emaitzak jasotzen ditu.

Izenburuak iradokitzen duen bezala, argi bereizitako bi zati izan ditu topaketak:

- Lehen, Gasteizerako nekazaritzako elikagaien estrategia iraunkorra eraikitzeko oinarrien dokumentua **balioztatzea**.
- Bigarrena, **hurrengo urratsak taldean definitzea**, balioztatutako oinarrien dokumentutik ondorioztatzen diren ekintza eta konpromiso zehatzak garatzearen.

Ondoren azalduko dugu xehekiago hori guztia, **edukien eskema** honi jarraituz:

1. Parte-hartzaileak.
2. Topaketaren helburuak.
3. Emaidzak:
  - Oinarrien dokumentua balioztatzea.
  - Egin beharreko hurrengo urratsak taldean definitzea.
4. Esker-ematea eta amaiera.





# 1. Parte-hartzaileak

Pertsona hauek **izan dira protagonista topaketan:**

Eduardo Aginaco	Andres Alonso
Xabier Alzola	Luis Andres
Uxue Arbe	Sugoi Auzmendi
Vicente Briñas	Susana Cantero
Ruben Crespo	Javier Chaves
Ainhoa Etxeandia	Amaia de Ariño
Ivan del Caz	Roberto de Miguel
Maria de Santiago	Carmen de Vega
Juan Carlos Escudero	Oscar Fernandez
Angel Fdz de Labastida	Miguel Angel Garcia-Fresca
Javier Goikoetxea	David Gonzalez
Roberto Gonzalez	Oskar Hernando
Silvia Hernando	Monica Ibarondo
Alfredo Iturricha	Idoia Jalon
Javier Knorr	Patxi Lauzurika
Pedro Lizarralde	Fernando Lopez de Aretxabaleta
Peio Lopez de Munain	Javier Lopez de Robles
Joserra Mauleon	Gurutze Ocio
Eduarne Ortun	Lucia Peña
Ana Isabel Perez	Iñaki Prusilla
Koldo Rey	Beatriz Rosales
Luis Royero	Roberto Ruiz de Arcaute
Unai San Martin	Txetxo Serrano
Jose Uranga	Marian Uriarte
Gorka Urtaran	Jose Velado
Ane Itziar Velasco	

**Orotara 51 pertsona** –35 gizon eta 16 emakume–, profil desberdinetakoak (politikariak, teknikariak, ekoizleak, kontsumitzaileak, gizarte-eragileak). Mila esker guztiei zuen inplikazioagatik! **Eskerrik asko guztioi!! Plazera izan da!**

## 2. Topaketaren helburuak

Topaketak bi helburu zituen:

- Batetik, Gasteizerako nekazaritzako elikagaien estrategia iraunkorra eraikitzeko **oinarrien dokumentua balioztatzea**. Izan ere, definizio-prozesuan parte hartu duten eragile guztiei – ekoizleak, kontsumitzaileak, gizarte-eragileak eta erakundeak— dagokie hori balioztatzea.
- Bestetik, **inplikaturako eragile guztien artean egin beharreko hurrengo urratsak definitzea** oinarrien dokumentuaren edukia sustatu eta garatzearren.

Eta horretan jardun dugu saioan.

Lehenengo 45 minutuak dokumentua balioztatzeari eskaini dizkiogu, eta **ikuspegi instituzionalagoa** izan du, Udaleko eta Arabako Foru Aldundiko arduradun politikoek parte hartu baitute; amaitzeko, kafe-topaketa egin dute parte hartzaileek.



Bigarren zatiak 2 ordu inguru iraun du, eta **parte hartzeko lantegiaren** formatua baliatu du taldean hausnartzeko eta lan prozesu honetan elkarrekin hurrengo urratsak definitzeko.



## 3. Emaitzak

- **Oinarrien dokumentua balioztatzea**

Gorka Urtaran alkatea izan da buru topaketaren lehenengo zatian. Haren ustez, **sareko lana** izan da gakoetako bat gaur balioztatzen den oinarrien dokumentura iristeko. Izan ere, agiri horrek definitzen du inplikaturako agente guztiek partekatutako erreferentzia-esparrua, ekintzara igarotzeko.

Hasierako aurkezpenean, IGIko kide Juan Carlos Escudero eta María de Santiagok duela 10 urte abiarazitako **ibilbidearen** garrantzia aipatu dute. Ibilbide horren barruan mugari garrantzitsua izan zen "Vitoria-Gasteiz, nekazaritzako elikagai-sistema jasangarriaren alde" **adierazpena**, hiriko gizarte-eragile eta entitate ugari 2012tik 2014ra bitartean landutakoa.

Adierazpen hori 2016ko lehen seihilekoan egindako **partaidetza-prozesuaren** atarikoia izan zen; aurrez aurreko 6 lantegi egin ziren prozesu horretan, online egindako 4 inkestek osatuta. Guztira, 105 pertsonak hartu zuten parte lantegietan — 59 gizonak eta 46 emakumeak—; orotara 224 esku-hartze izan ziren, eta ekitaldi bakoitzean batez beste 37 pertsonak hartu zuten parte; parte-hartze birtuala mugatuagoa izan zen, 72 inkesta erantzun baitziren.

Partaidetza-prozesuan **3 fasetan banatu zen lana**:

1. Udalerriko nekazaritzako elikagaien sistemaren aurretiazko diagnostikoa balioztatzea.
2. 21 helburu partekatu definitzea.
3. Jarduera-proposamen zehatzak identifikatzea.

Horren emaitzak osatzen du **Gasteizerako nekazaritzako elikagaien estrategia iraunkorra eraikitzeko oinarrien dokumentua**.

Dokumentu hori **balioztatzen da gaur<sup>1</sup>**, eta eman beharreko hurrengo pausoen inspirazioa izango da.

---

<sup>1</sup> Halaxe berretsi da saioan, eta prozesutik ere horixe ondorioztatu da, taldeari berrikusteko emandako epean ez baita ekarpen, zuzenketa edo hobekuntzarik jaso.

Horrekin lotuta, alkateak agiriarekiko **udal konpromisoa** adierazi du:

- Batetik, oinarrien dokumentua **Udalbatzari** helaraziko zaio, onets dezan.
- Bestetik, berariazko **udal ekintza-plana** idazteko erreferentzia izango da; aipatutako plana barneko agiri teknikoa izango da, zerikusia duten udal sailen partaidetzaz landua.

Lehen zatia osatzeko, IGiko kideek **topaketaren bigarren zatian eztabaidatuko den gaia** aurkeztu dute. Estrategiaren garapenean eman beharreko hurrengo pausoei begira,


**Nola emango zaio segida prozesuan sortutako sareko lanari?**

**Nola erraztu daiteke inplikaturako agenteak balioztatutako oinarrien dokumentuari atxikitzea eta konpromisoak hartzea?**

**Zer behar da horretarako?**

Galdera horiek eta beste batzuek gidatu dute ondorengo eztabaida eta lan kolektiboa.

Aurretik, oinarrien agiria balioztatuz egindako urratsa amaitutzat eman eta ospatu egin dugu, **kafe-topaketa** eginez.



- **Egin beharreko hurrengo urratsak taldean definitzea**

Aurrera begira zer pauso zehaztu eta erabaki dugu?

Zein izan da talde lanaren eta elkarrizketaren emaitza?



Hasierako talde dinamikaren eta ondoko saio bateratuaren bitartez, abiapuntuko ikuspegiak eta planteamenduak ezagutu ahal izan ditugu, eta horiek oinarritzat hartuz, **etapa berriaren gako nagusiak elkarrekin sortu eta erabaki ditugu talde elkarrizketa bizi batean.**

**Zehazki, parte-hartzaileek erabaki hauek hartu dituzte 2017rako:**

### **2017. urteari begira:**

- **Irizpide hauek** definitu behar dute datorren urterako ekintza:
  - **Erraztasuna**, planteatzen diren ibilbidea, jardunbideak eta prozedura bideragarriak, errealistak eta egingarriak izan daitezten.
  - **Talde honen dinamikari eustea prozesuaren balio gisa:** inplikaturako agenteen partaidetza sendotzea, gakoetako bat baita oinarrien dokumentua eta lankidetza prozesua garatzeko. Parte hartzeko gune honek —batzarra, foroa, talde eragilea...— **proiektuaren oinarria eta zutabea izaten jarraitu behar du**, eta prozesuak berak definituko du zein eite edo egitura hartzen duen.
  - **Aldi berean arlo ezberdinetan lan egitea:** inplikaturako agenteen ekintza eta konpromiso zehatzak, orain arte landutakoaren komunikazioa eta sozializazioa, eta eranste eta atxikpen berriak.

## Definitutako irizpideetatik abiatuz, 2017rako egiteko zehatz hauek ezarri dira:

- **Egin beharreko lanak:**

1. Estrategian inplikatu dauden eragileen eta egon ez arren egon beharko luketenen **mapa osatzea**.

Horretarako, eta oinarrien dokumentuko 21 helburuak kontuan izanik, inplikaturako agente bakoitzak adieraziko du:

- Zer egiten den dagoeneko.
- Zer egiteko konpromisoa hartzen duen epe motzera eta, kasua balitz, norekin garatu nahiko lukeen -lankidetzaren bidez garatzeko proiektuak balira-.

Sortutako informazioari esker abian jarritako ekimenak ikusarazi eta nabarmendu ahalko dira, eta geroko ekintzetarako aliantza posibleak identifikatuko, bai eta inplikaziorik ez dagoen eta esku hartzeko beharra duten eremuak identifikatuko ere (3. egitekoa).

Taldeak uste du horrexek izan behar duela 2017ko lehen egitekoa, eta lortutako emaitzen arabera garatuko direla gainerakoak, aldi berean.

2. Gasteizko Udalak datozen hilabeteetan idatziko duen **udal ekintza-plana lantzen parte hartzea**, zeina hirirako nekazaritzako elikagaien sistema iraunkorraren eraikuntzarekin duen konpromiso zehatzaren erakusgarria baita.

Sailen arteko barneko lanarekin batera, taldea osatzen duten agenteen —edo bat egiten duten beste batzuen— inplikazioaz eta partaidetzaz aberastuko da plana.

3. **Hasierako mapatik sortzen diren ekintzak lehenetsi, zehaztu eta abian jartzea:**

- Dagoeneko garatzen ari diren ekimenak ikusarazteko ekintzak.
- Agente ezberdinek eta sor daitezkeen aliantzek adierazitako konpromisoetatik eratorritako ekimen berriak eta ekintza zehatzak.
- Beste eragile gako batzuk erakartzeko sozializazio-ekintzak.



## Definitutako irizpideetatik abiatuz, 2017rako egiteko zehatz hauek ezarri dira:



- **Egin beharreko lanak:**

4. **Oinarrien dokumentuari atxikitzeko irizpideak definitzea.** Atxikitzeko irizpide ireki batetik abiatuta, gutxienero batzuk bermatu beharko dira sarean sartu ahal izateko. Hauek izan litezke gutxienero konpromisoak:

- Agroekologiaren aldeko apustua.
- Ekoizpenaren hurbiltasuna.
- Sareko lana.
- Sarean parte-hartzea publizitate-plataformatzat ez erabiltzea.
- Hobekuntza etengabea.

5. **Oinarrien dokumentua sozializatu eta zabaltzea** maila ezberdinetan:

- Hiri osoan zabaltzea oro har, udalaren web-orrian, edo ekitaldi/jai bat eginez, zeinean elikadura lehentasunezkoa dela azpimarratuko baita, eta dagoeneko hirian garatzen ari diren jardunbide egoki batzuk nabarmendu (eskola-baratzeak eta beste).
- Oraindik sarean ez dauden baina egon beharko luketen eragileentzako berriazko zabalkundea (1. eta 3. egitekoen ondorioz). Adibidez, hauek aipatu dira: Arabako Kontzejuen Elkarteak, Gasteizko Kontzejuen Elkarteak, pobreziaren kontrako elkarteak, ostalaritza eskolak, guraso elkarteak, Merkataritza Federazioa, kuadrillak...

Gainera, komunikazioari begira interesgarria litzateke irudi identifikatzaile bat (logo, lema edo antzekoren bat) izateko beharraz hausnartzea.

Azken ohar gisa 2 ideia aipatu behar dira: batetik, **definitutako egitekoak talde eragileak inplikaturako agenteen arteko lankidetzaren bidez sustatu eta bultzatuko dituela**; eta bestetik, ez dela egitura edo antolakuntza zehatzik erabaki taldearentzat, oraingo jardunbidea lehenetsi baita, eta hortik aurrera eboluzionatzen joatea.

## 4. Esker-ematea eta amaiera



Parte-hartzaileen ekimenez, topaketari amaiera emateko taldearen argazkia egin dugu, gaurko saioak utzi dizkigun sentipenen sinbolotzat: **elkarrekin diseinatu ditugu hurrengo urratsak, oinarrien dokumentua pauso sendoz abiatu dadin.**

**Eskerrik asko guztiei, posible egiteagatik.**

**Mila esker!**